

Euskaltzaindiaren *Arauak*

Exonomastika batzordea

2021eko araugintza

2021ean argitaratutako exonomastikako arauak

1) Urriaren 5ean, 193. araua argitaratu zen (193. araua: **Artelanen izenak. Arkitectura**)

2020an, 191. arauan, Historiaurreko eta Antzinaroko artelanak euskaraz adierazteko irizpideak eta adibideak eman ziren. Haren jarraipena da arau hau. Munduko era guztietako monumentuak euskaraz adierazteko irizpide orokor eta xeheak zehazten ditu. Artelanaren izendapenaren egituraren arabera zer aukera eta zer arazo dauden zehaztu ondoren, zer idatzi behar den letra larriz hasita eta zer letra xehez adierazten da arauan, bai eta zer irizpideren arabera erabakitzen den arkitekturako kanpoko artelan baten izena euskaratzea edo jatorrizko forma erabiltzea ere. Halaber zehazten da noiz ezaba daitekeen artelanaren izen generikoa (*eliza, zubia, jauregia, dorrea...*) eta zergatik, eta kasu berezi batzuetarako irtenbideak ere ematen dira (erdal artikuluekin zer egin, eraikin erlijioso batzuen izenen kasu bereziak...).

Irizpide nagusiak emateaz gainera, mundu osoko artelan ezagunen zerrenda bat ere ematen da arauan, arkitekturako 100 obratik gora dituen, eta, euskarazko izendapenaz gainera, gaztelaniazkoa, frantsesezkoa eta ingelesezkoa ere ematen dira. Hona hemen adibide batzuk:

Done Paulo Harresiz Kanpokoaren basilika, Louvreko kolomadia, Mekako Meskita Handia, San Joan Laterangoaren basilika, Notre-Dame katedrala; Kape-ra Sistinoa...

2) Abenduaren 21ean, 47. arau eguneratua argitaratu zen (47. araua: **Hizkuntza hilak eta klasikoak**).

Hizkuntza hil eta klasikoen arauaren jatorrizko bertsioa 1995ekoa da, eta hogeita

hamabost hizkuntzaizen biltzen ditu. Lehenengo arauetakoa da, duela hogeita bost urte baino gehiago emana, eta gerora Euskaltzaindiak 142. arauan ([Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak](#)) eta 147. arauan ([Antzinateko hirien euskarazko izenak](#)) zehaztu dituen irizpideekin eta hartu dituen erabakiekin bat etorrarazteko eguneratu da, lau hizkuntza-izenetan garai hartan hartu zen erabakia ez baitzeturren bat geroa hizkuntzaizen horien jatorrian dauden lekuizenetarako araututako formarekin.

Horregatik, hizkuntza horien izenaren eta hizkuntza horren lurraldeen izenaren eta lurralde horietako herritarren izenaren arteko koherentzia ziurtatzeko, lau hizkuntza izen hauek eguneratu dira:

akadera (lehen, *akadiera*), haren jatorrian dagoen **Akad** lekuizenarekin eta **akad-tar** izen/adjektibo arautuekin bateratzeko.

hattiera (lehen, *hatiera*), haren jatorrian dagoen **Hatti** lekuizen eta **hattiar** izen/adjektibo arautuekin bateratzeko.

liziera (lehen, *likiera*), haren jatorrian dagoen **Lizia** lekuizen eta **lizar** izen/adjektibo arautuekin bateratzeko.

sumerrera (lehen, *sumeriera*), haren jatorrian dagoen **Sumer** lekuizen eta **sumer-tar** izen/adjektibo arautuekin bateratzeko.

Bestalde, 2021eko azaroaren 26an, Osoko Bilkurak 194. araua (*Artelanen izenak. Pintura, argazkigintza eta eskultura*) onartu zuen. Dena dela, arau hori ez zen argitaratu 2021ean, 2022an baizik.